

Literatura

Albert Sanchez-Piñol

«Asko saldu diren liburu onak ere badaude»

Albert Sanchez-Piñol (Bartzelona, 1965) liburu batek egin du ezagun: *La pell freda* eleberriak. Katalanez 100.000 aletik gora saldu eta 37 hizkuntzatarata itzuli ondoren, euskaraz kaleratu du Txalaparta argitaletxeak orain gutxi. Garai bertsuan kaleratu dira *Tretze tristos tràngols* ipuin bildumaren eta *Pandora al Congo* nobelaren gaztelaniazko bertsioak ere.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: José Colón

Has gaitezen azkena argitaratu zenuenarekin: bi nobelatzarren ondorenean etorri zen *Tretze tristos tràngols* ipuin liburua.

Solte idatzitako ipuinak dira edo bilduma zenuen buruan?

Liburua, literaturaren aldean, asmakizun berri xamarra dela gogoratzea gustatzen zait, liburua baino antzinagokoa dela literatura, alegia. Ipuinarekin argi ikusten da hori. Nire kasuan, istorioa pentsatzen dut lehenik eta gero erabakitzen dut zein genero dagokion, batzuetan eleberria, besteetan ipuina, gidoia, saiakera. Kasu honetan, ipuin dezente nituen pilatuak, eta horiei irteera emateko osatu nuen bilduma. Batzuk dagoeneko argitaratuak nituen, egunkarrietan edo atzerrian, eta beste asko argitaragabeak ziren.

Ipuin independenteak, beraz.

Bai, baina nahita. Ipuinok aukeratzeko irizpidea beren arteko diferentzia izan zen, liburu bakarrean hamahiru

eskaintza ezberdin izan nahi nituen eta ez bilduma konpaktu bat, sarri egiten den beza-

la. Hemen, ipuin bat edo beste kenduko bagenu, horien hutsunea nabarmena litzateke, zerbait faltako litzateke liburuan. Horrela egin dut, akaso, erreferenteen artean Dino Buzzati dudalako, haren obra izugarri zabal eta anitza.

Askotarikoak dira, bai, baina bada elkartzen dituen elementurik; oroz gain, elementu fantastikoak. Errealitate gordinak ez dizu balio literatura egiteko?

Elementu fantastikoak baliabide dira niretzat, harago doan zerbaitez hitz egiteko. Lehen ipuineko protagonistak selenitak dira, ilargitik lurrera migratzen dutenak, eta beste edozein kolektibo jarri izan banu, senegalarrak adibidez, ez luke funtzionatuko, kazetaritza erreportaje bat litzateke edo sermoi bat. Elementu fan-



tastikoak erabiltzean hitz egiten duzu gehien errealitateaz. Gurean denok gara Sanchez-Piñol, denok gara nahasketa, horixe esan nahi nuen lehen ipuinean. Gainera, nirea ez da zientzia fikzioa, ez dut elementu fantastikoak argitzeko inolako interesik, ez zait interesatzen Martitzekin telefonoz hitz egin daitekeen. Kontakizuna abiatzeko erabiltzen ditut, literaturaz kanpo baliorik ez duten argumentuak nabarmentzen baitira fikzio eta fantasiarekin.

Baina beti duzu begi bat errealitatean; aipatu ipuin horretan migrazioa, beste batean biolentzia matxista.

Idazle ofizioak, nire ustez, badu xamanarekin harremanik. Antropologiaren ikuspuntutik, xamana, substantzia batzuen laguntzarekin edo gabe, bere gorputzetik atera eta dimentsio estrainioekin sartzen da kontaktuan. Baina, kasualitatea, ikusitakoak azaltzen dituenean, kontuok oso lotuta egoten dira beti bere komunitatearen behar eta gatazkekin. Horrek erakusten digu muturreko fantasiak balio digula errealitatea hobeto lubrifikatzeko. Gero bada beste literatura bat, “ni”arena, baina ez zait interesatzen. Zer esango nuke nitaz, munduko pertsonarik aspergarriena naizen honek?

Zure bigarren eleberria, *Pandora al Congo*, berrinprimatu da gaztelaniaz. Batzuek abentura nobelatza hartu dute. Etiketa zuzena iruditzen zaizu edo kondena bat?

Genero bat baino gehiago biltzen ditu nobelak: izan daiteke abentura nobela, fantastikoa, amodiozkoa, polizia eleberria ere bai –hilketa bat gertatzen baita, ikerketa, epaiketa bat, erruduna nor den jakin arte–; satira gisa ere uler daiteke. Eskertzen diet argitaletzekoei liburuak berreskuratu izana. Berehalakoaren diktadura pixka bat lurruntzen da hala, garai ultra azkar hauetan, etxebizitzak bost, autoak lau eta emazteak hiru urte irauten dizkizuten garaiotan.

Aurrekoa ez errepikatzea izango zen erronka.

Bai, baina banekien edozer gauza eginda ere kritikak jasoko nituela: antzeko gauza bat egin izan banu edo gauza erabat ezberdina, berdina. Nire lana jendeak irakurriko dituen liburuak idaztea da eta saiatzeko naiz landuak egiten, ez liburu salgarri horietakoak. Oso erraza baita horrelakoak egitea, hiru aste behar dira. Bigarren eleberriak, irakurleak igarriko dio, egitura landuagoa du. Bi liburu diferente egin nituen, elementu fantastikoa batasun gisa dutenak.

**“Larrua hotz eleberriak
esplikatzeko duena zera da:
zure etsairik handienak
zure antz izugarria izan
dezakeela”**

Bai eta literatura egiteko modu bera ere, nahikoa tradizionala.

Ados nago zurekin, %90ean. Inork esan izan dit lehengoen gisako liburuak idazten ditudala. Baina sarritan berritzailetzat hartzen da inola berritzaile ez den zerbait, eta berritzailea da berritzaile ez dirudien hori. Nobela esperimentalaz ari direnean porrot egindako esperimenez ari dira. Mundu guztiak du esplikatzeko istorio bat, baina mundu guztiak ez daki istorio hori esplikatzen. Gauero amets egiten dugu, eta goizean ametsa gertatu bezala kontatzen baduzu inork ez du piperrik ulertuko, itxuraldatzea baita idazlearen funtzioa. Ez zait interesatzen inspiratutako idazlearen figura, Frantziako iraultzaren herentzia dena, bidenabar. Ordura arte garrantzitsuena istorio bat kontatzea zen. Shakespeare ez da bere lan bakar batean ere agertzen eta inori ez zitzaizkion bere iritziak axola. Orain badirudi Txinako zapata industriad ere jakitun behar duela idazleak. Baina nik uste dut, bestea aztertzeko prozesu horretan, zeure burua ezeztatzen baduzu, hobe dela, antropologian bezalatsu.

Zure literatura antropologikoa dela esango zenuke, beraz, egiazen bila abiatzen dela?

Literaturan aplika dezakedan ezagutza eskaini dit antropologiak, edukiz betetzen dut, esplikatzeko zerbaitekin. Eleberri bakoitzaren azpian esaldi kontrolatzaile bat egon beharko litzateke, egiazen bat esplikatzen duena. Eta horrexegatik du balioa literaturak, bestelako eremuetan esplikatu ezin daitezkeen egiak argitzen dizkigulako. Bestela, hartu edozein klasiko eta ikusiko duzu zer nolako tontakeriak kontatzen diren bertan.



Bibliografia laburra:

- *La pell freda* (La Campana, 2002); *Larrua hotz* (Txalaparta, 2009); *La piel fría* (Edhasa, 2005).
- *Pandora al Congo* (La Campana, 2005); *Pandora en el Congo* (Alfaguara, 2009).
- *Treize tristos tràngols* (La Campana, 2008); *Trece tristes trances* (Alfaguara, 2009)

Kafka, adibidez, goizean intsektu bihurtuta esnatzen den gizonarena. *Kixotea* bera. Baina bi horien azpian egia bat ezkututzen da, azkenaren kasuan arrazoia arrazoirik ezan dagoela, adibidez.

Eta hirugarren nobedadea, *La pell freda*, euskaraz editatua, *Larrua hotz* izenarekin. Itzulpen horrek esanahi berezirik du zuretzat edo urtu egiten da beste 36en artean?

Ez, esanahi berezia du niretzat, noski. Galizieraz argitaratu zuten, gaztelaniaz ere bai, euskaraz behar zuen orain. Ilusio handia egin zidan, trafiko gutxi baitago bi kulturen artean, hain gertu geografikoki eta hain urrun, aldi berean. Gainera harreman estua goa dut Euskal Herriarekin Hego Korearekin baino, adibidez.

Gauza bitxia da, baina bi herrialdeen arteko afinitateaz hitz egiten du mundu guztiak, eta erabatekoa da ezjakintasuna. Literatura horren adibide.

Afinitatearen ideia faltsua da, arrazoi duzu,

Albert Sanchez-Piñol **kultura eta aisia**

erdiko kultura

bada komunean zerbait dugula uste duen imaginario oso bat, baina elementu komun hori Espainia da. Elkar trukaketak erabat baldintzatzen ditu gaztelania, eta katalanetik euskarara zuzenean, eta alderantziz, itzul dezakegu, hortxe dago grazia. Asko atsegin dudana euskal idazle bat Joseba Sarrionandia da eta ez dago itzulia! Nahiz eta bi errealitate oso ezberdin izan, hartu-eman handiagoa beharko luke.

100.000 aletik gora saldu dira edizio katalanetan, autore ezaguna izan gabe, atzean argitaletxe handirik gabe eta marketinean asko inbertitu gabe. Nolatan?

Zoriak parte hartu du, hori ukaezina da, baina ordurako urte dezente neramatzan idazten, muskulatura narratiboa dago eta ikasketa, eta horiek gabe zorteak ez dizu lagunduko. Gero, oso unibertsala izan daitekeen gai bat ukitzen du. Nik uste dut liburu handi guztiak laburbildu beharko lirakeela esaldi batean, eta *Larrua hotz* eleberriak esplikatzeko duena zera da: zure etsaierik handienak zure antz izugarria izan dezakeela. Ideia kezagarria da, baina baita egia unibertsal bat ere, hamaika gatazketan isla daitekeena.

Best seller terminoak zer esaten dizu zuri?

Hasiera batean asko saldu den liburu bati egiten dio erreferentzia. Badira asko saldu diren liburu txarrak, eta gutxi saldu diren onak, baina asko saldu diren liburu onak ere badaude, Umberto Ecoen batzuk, esaterako. Gainera, ez nau nardatzen lehen *best seller* katalana dela esaten dutenean. Nahiago dut, ordea, literatura herrikoia egiten dudala esatea. Okzitaniarrek bizirauteko estrategia bat hartu zuten orain ehun urte, Nobel saridun bat izatea. Eta lortu zuten, Frederic Mistral, baina nor gogoratzen da egun okzitanieraz? Nik uste dut garrantzitsuago dela asko irakurtzen den literatura bat, beste ezer baino. ■

Ugarte
Nekazalturismoa

Bebailara,
20159 ASTEASU
Tel.: 943 69 27 22 / 657 72 53 21
e-posta: legarrayolan@yahoo.es
www.caseriougarte.com

olaberriako
zirkuitua

GIDA ESKOLA • KARTINGa

Gainera nuzca, zig
20212 OLABERRIA (Gipuzkoa)
T 943 16 08 62
www.villaninomotor.com - info@villaninomotor.com